

## MARRAZKETA ETA PINTURA

### Jarduera

Teknika ezberdinak erabiliz marrazten eta koloreak nahasten ikasteko arauak eta jarraibideak.

### Deskribapena

Marrazketa margoaren oinarria dugu. Abstrakziotik figuraziora, artistak garatuko du bere berezko estiloa non bere keinua eta aiurria islatuko da bere arte-lanetan. Mihiztadurak, koloreak eta itzalak menperatzeko ariketak proposatuko dira eta behin bereganatzen diren oinarrizko teknikak, ikasleak berezko ariketak garatuko ditu.

### Helburuak

- Ikaslearen sormen gaitasuna eta disziplina garatzea.
- Marrazketa eta margo tekniken ezagutza suspertzea.
- Giza-partaidetzarako antzinako espazioak berreskuratzea.
- Hiritarren kulturmina asetzea.

### Nori zuzendua

Helduak

### Ikasleak eraman beharreko materiala

Arkatza eta papera. Erabiliko den teknikaren arabera margoak, pintzelak eta euskarria

### Oharra

Ikasle guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioa bera saihesteko ere. Agintariek eta Donostia Kulturak ezarritako segurtasun eta higiene neurriak jarraitu beharko dira.